

## **EUSKAL GATAZKAREN MEMORIA BERRERAIKITZEN: GOGOETA EPISTEMOLOGIKOA**

Gerra Zibilak gogor astindu zuen Hego Euskal Herria. Hildakoak, kartzelaratuak, errefuxiatuak, langile batailoietan esklabutza lanetan aritutakoak...

Orain dela 75 urte hasi zen gudak biktima, samin eta jazarraldi ugari sortu zituen, baina, ia oraintsu arte, kaltetuek isilean bizi behar izan dute oinazea. Frankistek aldekoen eta aurkakoen artean desberdintzen zituzten herritarrak, eta euren biktimen memoria landu zuten bakarrik. Franco hil ostean, agintari politikoek gutxi egin dute gerrako biktimen memoria berreskuratzeko, eta, ondorioz, gerran sufritu zuten gehienak babes eta onarpen gutxirekin hil dira. Gerrak apurtu zituen familia abertzale eta ezkertiar askok euren bizitzak berreraiki ahal izan dituzte, baina kalte sinbolikoak, oroimen mingarriak eta frustrazioak presente izan dituzten beti.

ETAk Jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki duela jakinarazi ostean, garai politiko eta sozial berri bat hasten da Euskal Herrian. Normaltasuna berrezartzeko pauso ugari eman behar dira oraindik, baina, zalantza gabe, ETAREN erabakiak etorkizun baikorrago baten atea zabaltzen du.

Gerra Zibileko esperientzia ezagututa, ezinbestekoa da gatazkaren aurpegi guztiak ikertzea eta memoria historikoaren

aldeko ekimenak bultzatzea, hain justu ere, azken urte haue-  
tan, alde guztietan ireki diren zauri psikologiko eta sozialak  
behar bezala osatzeko. politiko, sozial eta instituzionalen izan  
behar luke gertatutakoaren kontaketa justua eta zuzena egitea,  
eta sufritu duten guztien memoria bizirik gordetzea.

Nola berreraiki behar da memoria historikoa? Zein metodo-  
logia erabili behar da euskal gatazkaren kontaketa egiterakoan?  
Zer-nolako teknikak erabili behar dira ikerketan? Artikulu ho-  
netan, Gizarte Zientzien ikuspuntutik, euskal gatazka deitu  
izan denaren berreraiketa eta kontaketa egiteko hartu behar  
diren erabaki epistemologiko batzuei buruzko gogoeta aurkez-  
ten dut.

## **I. ERABAKI EPISTEMOLOGIKOAK GIZARTE ZIENTZIAN**

Edozein gai aztertzerakoan, gizarte ikerlariak hainbat eraba-  
ki metodologiko eta tekniko hartu behar izaten dituzte. bakoit-  
zak bere beharrak, oztopoak, helburuak eta, oro har, berezita-  
sunak dituen heinean, tokian tokiko ikerlariak erabaki behar  
izaten dute zeintzuk diren errealitate soziala ikertzeko metodo-  
rik eta teknikarik baliagarrienak eta fidagarrienak.

Euskal gatazka aztertzerakoan ere, gizarte ikerlariak metodo  
eta teknikei buruzko makina bat deliberamendu hartu beharko  
dituzte.

### **1.1. Tradizio metodologikoak gizarte zientzietan**

Gizarte zientzietan, hiru paradigma edo tradizio metodo-  
logiko nagusi daude: tradizio positibista (banaketetan oinarrituta-  
ko ikuspegi metodologikoa eta teknika kuantitatiboak), tradi-  
zio hermeneutikoa (ulermen-estruturalean oinarritutako ikus-  
pegi metodologikoa eta teknika kualitatiboak) eta tradizio  
dialektikoa, (ikuspegi metodologiko dialektiko-kritikoa eta tek-  
nika parte hartzaileak).

**Tradizio positibistaren** arabera, errealitate soziala modu enpirikoan aztertu behar da, natur zientzietan bezala. Inkestent<sup>4</sup>, behaketa zuzenen<sup>5</sup> edo saioen<sup>6</sup> bidez lortzen diren datuak kuantitatiboki aztertuz, emaitzen orokorpen probabilistikoak lortu daitezke; ostean, gizarte errealitatea gidatzen eta azaltzen duten lege kausalak ezagutzeko, eta, azken finean, aurrerantzean gertatuko dena aurreikusteko. Gertaera sozialak, beraz, errepikakorak eta aurreikusteko modukoak dira, eta teknika kuantitatiboan bitartez, egiaztapen enpirikoak lortu daitezke.

Tradizio metodologiko honen arabera, gizarte ikerkuntza neutroa eta aseptikoa da, lortzen dituen datuak objektiboak dira, eta jakintza teknikoa, objektiboa eta instrumentala sortu behar du. Beraz, ikerketek ezin dute loturarik izan balio, ideologia eta politika zehatzekin. Gizarte ikerlariek datuak bildu eta interpretatu egin behar dituzte bakarrik. Errealitatea eraldatzea politikarien, erakundeen edo beste gizarte eragile batzuen lana da.

Ikuspuntu honen arabera, euskal gatazka ikertu eta gertatutakoa behar bezala berreraikitzeke, biktimen, gatazkan parte hartu duten protagonisten eta, oro har, herritarren artean inkestak egin behar dira eta datu kuantitatiboak bildu. Izan ere, balioko ikerketa bakarrak dira kontaketa onartzen dutenak eta laginketa errorea eta fidagarritasuna neurtzea ahalbidetzen dutenak. Datu kuantitatiboek ideologietatik aldentzean laguntzen

---

<sup>4</sup> Inkesta galdeketa baten bitartez informazioa jasotzeko teknika da. Aztergai den populazio guztiari edo lagin bati galdetuz, informazio adierazgarria lortu daiteke.

<sup>5</sup> Behaketa Zuzenaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea.

<sup>6</sup> Saiakeran oinarritutako diseinuetan ikertzaileak aldagai askea, aztergai diren subjektuak eta aztergai den fenomenoak kontrolatzen ditu. Hala, fenomenoaren azalpen kausalak lortu daitezke; hau da, talde esperimentalean (estimulua hartzen duena) eta kontrolerako taldean (estimulua hartzen ez duena) menpeko aldagaiaren aldaketak neurtuz, estimulu esperimentalak zenbateraino eragina duen jakin daiteke.

digute, beste gizarte batzuetan gertatu denarekin alderaketak egiteko aukera ematen, eta beste gizarte eta egoera batzuetarako baliaagarriak izan daitezkeen orokortasunak ematen.

**Ikuspegi hermeneutiko edo konprentsiboaren** arabera, gizakiaren portaerak bere barne izaeraren adierazpenak dira. Giza portaerak edo gertaera sozialak aztertzeke, beraz, ezin bestekoa da gizakiaren barne izaera edo barne dimentsioa sakonean ezagutzea; hau da, gizakiok ideiak, baloreak, sinismenak edo pentsamenduak barneratzeko eta sortzeko dugun gaitasun sinbolikoa ulertu behar da. Izan ere, portaera sozialen azpian dagoen barne dimentsio sinboliko horrekin, gizakiok zentzua ematen diegu gure portaerei. Hortaz, gizartea ezin da enpirikoki aztertu, modu kualitatiboan aztertu daiteke bakarrik. Are gehiago, fenomeno sozialen azterketan, lege orokorrak eta unibertsalak ezin dira lortu, gizarte zientziak zientzia ideografikoak direlako –ingurune zehatzak aztertzen dituzte–, eta ez nomotetikoak –lege orokorrak formulatzen dituztenak–.

Portaera edo gertaera sozialen sakoneko esanahia eta zentzua behar bezala ulertzeko, beraz, ikerketan parte hartzen dutenen esanahi-sistema sinbolikoa ezagutu behar da. Eta hori teknika kualitatiboekin egin daiteke bakarrik. Sakoneko elkarriketen<sup>7</sup>, eztabaida taldeen<sup>8</sup>, bizitza historien<sup>9</sup> edo delphy

<sup>7</sup> Sakoneko elkarriketa informazioa lortu asmoz elkarriketatatu eta elkarriketatile biren artean egiten den elkarriketa profesionala da. Teknika honen bidez, elkarriketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu daiteke.

<sup>8</sup> Eztabaida taldea da informazioa lortzeko moderatzaile baten eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida. Honen bitartez, taldekideentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi du moderatzaileak.

<sup>9</sup> Bizitza historietan, elkarriketatuek euren bizitza kontatzen dute. Elkarriketatile baten laguntzarekin, elkarriketatuek euren bizitzako etapak, gertae-  
rak edo momentu garrantzitsuak, pozgarriak edo tristeak kontatzen dituzte. Ikerketan, elkarriketatuek idatzitako idazkiak, bizi izandako tokitara egindako bisitak, argazkiak, eskutitzak edo lagun eta senitartekoei egindako elkarriketak ere erabiltzen dira azterketarako material gisa.

teknikaren<sup>10</sup> bidez ulertu daiteke bakarrik ikergai diren pertsonen mundu sinbolikoa edota hauentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena. Iker paradigma honen arabera, gizarte ikerlarien helburua izan behar da teknika kualitatiboak erabiliz leku-koak biltzea, eta biktimek, kaltetuek, gatazkan parte hartu duten protagonistek eta, oro har, herritarrek gatazkari eta gertatutakoari ematen dioten zentzua eta esanahia ezagutzea, eta hortik abiatuz kontaketa egitea. Enpatian oinarritutako ikerketak bultzatu behar dira, euskal gatazkaren muinera heldu nahi bada.

**Tradizio kritikoa edo dialektikoa** ikuspuntu positibistaren kritikatik sortu zen; zehatzago esateko, tradizio positibistaren enpirismoarekiko kritikatik. Izan ere, tradizio dialektikoan kokatzen direnen arabera, ikerlariak inkesten, behaketen edo saioen bidez egiten dituzten ikerketek ez dituzte errealitatearen antzemate zuzenak egiten, ikerlariak behatzen duena eta antzematen duena, bizi den gizarte motaren eraginpean dagoelako. Alegia, ikerketa enpirikoen bidez, errealitatearen parte batzuk antzematen ditugu, baina osotasuna galtzen dugu. Horrela, momentu historiko bakoitzean, osotasun sozialak gizakien pentsamoldeetan eta portaeretan duen eragina ez bada aztertzen, itxurak eta azaleko gertaerak besterik ez dira ezagutzen, hau da, errealitatearen ikuspuntu partzialak lortzen dira (Mardones, 1997:38). Beraz, gizarte fenomenoekiko jarrerak, edo gizarte dinamikak ezagutzeko, testuinguru sozialak bere osotasunean hartu behar dira kontuan; alegia, fenomeno sozialak ikertzeko, fenomeno sozial hori kokatzen den errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta historikoak ikertu behar dira (Altuna, Berrio-Otxoa, Jausoro eta Martinez, 2008).

---

<sup>10</sup> Delphy teknikarekin informazioa eskatzen zaie adituei, eta informazio horretan oinarrituz erabakiak hartzen dira. Alegia, gai baten inguruko erabakiak hartzerakoan edo jarraitu beharreko bidea zehazterakoan iritzi liderrek galdeketa bati emandako erantzunak hartzen dira oinarritzat.

Ikuspegi kritikoak ez ditu teknika kualitatiboak edo kuantitatiboak ukatzen. Paradigma honek ikerketa parte hartzaileak proposatzen ditu. Izan ere, teknika parte hartzaileen bidez, hobeto antzematen da osotasun sozialak gizakien portaeretan eta jarreretan duen eragina (Altuna, Berrio-Otxoa, Jausoro eta Martinez, 2008). Teknika parte hartzaileetan, ikergai den asoziala elkarrekin, gizakiek edota gizarteek identifikatzen dute; arazo horren ezagutza holistikoa egiten da ikerlari eta ikergai den populazioko kideen artean; ikergai den populazioko kideek ikerketa prozesuan parte hartzen dute (hau da, populazioa ez da ikerketaren objektua, subjektua baizik); eta ikerketaren azken helburua da ikertzen ari den errealitatea eraldatzea eta ikerketa horretan parte hartu dutenen bizi kalitatea hobetzea. I, kasu honetan, informazioa biltzeko bidea izateaz gain, interbentzio modu bat da, ikergai den populazioa dituen arazoez ohartzeko, bere egoeraren azterketan sakontzeko eta, azken finean, mobilizatzeko. Zentzu honetan, gizarte ikerlariak euskal gatazkan parte hartu duten gizakiekin batera berreraiki behar dute gertatutakoa, eta, horrekin batera, ikerketak balio behar du gizarte kideak euren egoeraz eta dauzkaten arazoez jabetzeko (kontzientzia hartuz) eta errealitate horretan eragiteko.

Tradizio kritikoaren edo dialektikoaren arabera, euskal gatazkari buruzko ikerketa ezin da izan neutroa, aseptikoa edo objektiboa; izan ere, zientzia guztiak garai historikoen, ingurune kulturek eta gizarte-baldintzek ezartzen dituzten interesen ondorio dira. Hau da, ikerlariak lortzen dituzten datuak garaian garaiko balio, ideologia eta politikekiko lotuta daude.

## **1.2. Oinarrizko ikerketak eta ikerketa aplikatuak**

Gizarte ikerlariak, kokatzen diren tradizio metodologikoan kokatzen direla, idituen helburuen arabera, oinarrizko ikerketak edo ikerketa aplikatua egin ditzakete (Juaristi, 2003).

**Oinarrizko ikerketetan** (ikerketa purua, teorikoa edo dogmatikoa), ikerlariaren lehen helburua da gizarte errealitate bati buruzko ezagutza teorikoa handitzea, eta ez arazo bat konpontzea. Euskal gatazkari dagokionez, oinarrizko ikerketek gertatutakoa azaltzeko teoria landu beharko litzateke.

**Ikerketa aplikatuetan**(ikerketa praktikoa edo enpirikoa), aldiz, beharizan edo arazo sozial bati erantzun nahi zaio. Era honetako ikerketekin, arazoren baten inguruan jendearen arreta erakarri, arazo zehatzei irtenbideak bilatu edo gizarte batean dauden disfuntzioak konpondu nahi dira. Euskal gatazkaren inguruan, ikerketa aplikatuak egin behar dira, gatazkek sortutako arazo, biktima eta kaltetuen inguruan politika zehatzak sortzeko (hildakoen senideak, torturatuak, presoak...) edota hauen norabidea zehazteko, baita arazoetaz jendea ohartarazteko.

Kasu askotan, ikerketek bi helburuak izaten dituzte. Hau da, gai bati buruzko ezagutza teorikoa handitu nahi izaten da, eta, era berean, beharizan edo arazo bati irtenbidea eman nahi izaten zaio. Era honetako ikerketak **mistoak** dira.

### **1.3. Kanpo lanean oinarritutako ikerketak, saioak eta ikerketa dokumentalak**

Datuak lortzeko erabiliko dituen bitartekoen arabera, ikerlariak hiru eratako ikerketak egin ditzakete: saioak, kanpo lanak eta ikerketa dokumentalak (Juaristi, 2003).

**Ikerketa dokumentaletan**, ikerketa bibliografikoak (liburuaren ikerketa), hemerografikoak (aldizkarietako edo egunkarietako artikulak) edo artxibistikoak (eskutitzak, aktak, txostenak...) egiten dira.

**Ikerketa esperimentaletan edo saioetan**, gizakien bizitzan parte hartze kontrolatua eginez, portaera, jarrera edo gertaerak sortu edo manipulatzeko dira, gero hauei buruzko on-

dorioak ateratzeko. Egia esan, iruditzen zait oso zaila dela euskal gatazkaren inguruan saioak egitea. Izan ere, ez da erraza talde esperimentalak eta kontrolerako taldeak osatzea, eta estimuluek portaeretan eta jarreretan duten eragina neurtzea; ezta diseinu esperimentaletan oinarrituz generalizazioak egitea ere.

**Kanpo lanean oinarritutako ikerketetan**, datuak modu naturalean biltzen dira, gertatzen diren momentuan (behaketa zuzena) edo *post facto*, hau da, behin gertatu ostean (inkesta, sakoneko elkarrizketa, eztabaida taldeak, delphy, bizitza historiak...). Kasu batzuetan, ikerlariak berak biltzen ditu datuak, eta beste batzuetan, beste ikerlari edo erakunde batzuk bildu dituzten datuak erabiltzen dira ikerketarako (iturri ez zuzenen azterketa).

#### **1.4. Ikerketa esploratzaileak, deskribatzaileak eta esplikatzaileak**

Lortzen den ezagutza mailaren arabera, ikerketa esploratzaileak, deskribatzaileak eta esplikatzaileak bereiztu daitezke (Juaristi, 2003).

**Ikerketa esploratzaileetan**, fenomenoaren ezagutza orokorra lortu nahi da. Helburua gehiago da balizko azalpenak aurkitzea, hipotesi zehatzak frogatzea baino. Egia esan, errealitate sozial bati buruz gutxi dakigunean, ikerketa esploratzaileak oso egokiak dira, aztergai den fenomenora lehen hurbilpena egiteko. Zer aurkituko dugun alde zuzetik ez dakigunez, galdera orokorrak eta irekiak planteatzen dira. Ikerketa esploratzaileetan, oso onak dira behaketak, eztabaida taldeak eta sakoneko elkarrizketak; hau da, aztergai den fenomenoari buruz ideia orokorra ematen diguten teknikak.

**Ikerketa deskribatzaileetan**, fenomeno baten arlo desberdinen ezagupen zehatza egin nahi da, osatu ditugun hipotesiak frogatzeko. Ikerketa esploratzaileetan baino diseinu zehatza goak behar dira; hots, hipotesiak eta ikerketaren helburuak ar-



gi daudenez, ikerketa diseinu landuagoak erabiltzen dira. Era honetako ikerketetan, erabilgarriak dira inkestak eta ondo zehaztutako behaketak. Izan ere, hauen bidez neurtzen diren aldagaien arteko harremanak aztertu daitezke, ostean, aurreikuspenak egiteko.

**Ikerketa esplikatzaileetan**, hipotesi kausalak frogatu nahi dira; hau da, fenomeno sozialen zergatiak aurkitzea. Era honetako ikerketen helburua da aldagai bat edo batzuk beste aldagai batengan edo batzuegan duten eragina azaltzea. Aztergai diren fenomenoaren azalpen kausalak lortu nahi dira; beraz, teoria sendoak eta diseinu sofistikatuagoak behar dira ikerketarako.

## **2. MEMORIA HISTORIKOA BERRERAIKITZEKO ERABAKI EPISTEMOLOGIKOAK**

Manheim eta Rich-ek (1988) dioten bezala, “Jakingura eta beharra dira gizakiok egiten ditugun ikerketen arrazoi garrantzitsuenak. Inguratzen gaituen mundua ulertzen saiatzen gara, ezagutza handitzeko, edo datorkigunaren aurrean babesteko edo egoera hori hobea egiteko. Edozein modutan ere, ezagutzen hasteak berak esan nahi du, potentzialki behintzat, deskubritzen ditugun gauzak hobea egiteko nahi ditugula. Beste berba batzuekin esanda, gure ingurune sozial eta fisikoari buruz zenbat eta gehiago jakin, hobeto prestatuta gaude beragan eragiteko.”

Euskal gizarteko eragileen lana izan behar da, Euskal Gatazkaren inguruan ikerketak bultzatzea, ezagutza handitzeko, datorkigunaren aurrean babesteko eta gure gizartearen egoera hobea egiteko. Haina horretarako, epistemologiko egokiak hartu behar dira. Hona hemen proposamen batzuk:

– Euskal Gatazkaren inguruan oinarrizko ikerketak behar dira, gertatu denari buruzko ezagutza teorikoa handitzeko. Unibertsitateen, ikerketa guneen eta erakundeen lana izan behar da gai honen inguruan lan teorikoa bultzatzea. Baina horrekin batera, ikerketa aplikatuak ere egin behar dira, me-

moriaren, biktimen eta gatazkak sortu dituen arazo eta disfunzioei buruzko erabakiak hartzeko eta politika zehatzak bultzatzeko.

– Euskal gatazkari buruzko memoria berreraikitzeke, balio-koak dira paradigma positibista, hermeneutikoa eta kritikoa. Hala ere, nire ustez, egokia izan daiteke metodologia kritikoari edo dialektikoari garrantzi gehiago ematea. Alegia, alde guztietako biktimak edota gatazkaren protagonistak, eta baita herri-tarrak ere, azterketetan parte hartzea ahalbidetu behar da, ikerketa prozesuaren baitan, euren zein Euskal Herriaren errealitatea eraldatu dezaten. Ikerketak, gure herriak bizi izan duen sufrimenduari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko bideak izateaz gain, interbentzio moduak ere izan behar dira, herritarrek (bereziki biktimek) gatazkak sortu dituen arazoez jabetu daitezen, hauek konpontze aldera.

– Euskal gatazka ikertzeko teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak erabili behar dira. Inkestekin batera, sakoneko elkar-rrizketak, eztabaida taldeak edo bizitza historiak balia-arrriak dira gertatutakoaren kontaketa berreraikitzeke. Prozesu hone-tan, bereziki garrantzia eman behar zaie lekukotzei. Ahalegin berezia egin behar da alde guztietako lekukotzak biltzen. Izan ere, “Lekukoaren (izan biktima edo bizirik ateratzea lortu due-na, izan presente dagoena zein bizirik dirauen memoriaren sustatzailea) eta lekuko izan ez denaren arteko loturak sortzen dira lekukotzen bidez. Lekukoak espazio publikoan duen gar-rantziak presente egiten du bizi genezakeen baina bizi izan ez dugun esperientzia bat, eta horrekin batera kide-tasun-senti-menduak areagotzen laguntzen du, bai lekukoaren artean, bai lekuko ez direnen artean, zein bi talde horien artean ere” (Leiozaola, 2009:358).

– Inkesta, sakoneko elkar-rrizketa, eztabaida talde edo bizitza historiekin batera, ikerketa dokumentalak behar dira. Euskal Gatazkaren inguruko ikerketa bibliografiko, hemerografikoak

eta artxibistikoak bultzatu behar dira, gatazka behar bezala ulertzeko.

– Euskal ikerlariak ikerketa esploratzaileak, deskribatzaileak eta esplikatzaileak egin behar dituzte. Euskal gatazkaren arlo batzuei buruz ezer gutxi dakigu, eta ezinbestekoa da ikerketa esploratzaileak egitea. Horrekin batera, ikerketa deskribatzaileak egin behar dira, biktimen eta gatazkako aktoreen egoera, jarrera eta portaerengan eragina duten aldagaiak ezagutzeko, eta, ostean, etorkizunera begira erabakiak hartzeko. Azkenik, ikerketa esplikatzaileak egin behar dira, ahal den neurrian gertatukoaren zergatiak aurkitzeko. Merton-en terminologia erabiliz, euskal ikerlariak maila ertaineko teoriak sortu behar dituzte. Gatazkek dauden beste toki batzuetarako balioko duten maila ertaineko teoriak.

### **3. LORTUTAKO INFORMAZIOAREN ERABILERA**

Aitzpea Leizaolak dioen bezala, “Gerran garaile izan ziren aldetik, Francoren agintaldiak gertatutakoaz narratiba sendo bezain unibokoa bultzatu eta mantendu zuen berrogei urte luzez, bai eta memoria publiko ofizial bat eta bakarra, bere heroi eta biktimekin” (Leizaola, 2009:353).

Gerra ostean gertatu zena ez errepikatzeko, Euskal Gatazka deiturikoari buruzko ikerketa asko eta ikuspuntu desberdinetatik egin behar dira etorkizunean. Datu kuantitatibo eta kualitatiboak bildu behar dira, eta baita museoak, liburuak, memoriari eskainitako guneak, adierazpen publikoak, hitzaldiak, monumentuak eta dokumentalak sortu ere. Izan ere, horiek denak lagungarri dira, bai memoria gordetzeko, zein biktimen edota kaltetuen senideei elkartasuna adierazteko eta belaunaldi berriei gertatu zena erakusteko.

Memoria historikoaren alde egiteak ez du gizartearen egoera aldatzen, ez du biktimen sufrikarioa arintzen, baina gertatu zena ulertzen laguntzen digu besteoi, elkartasun sareak sendo-

tzen ditu gizartean, eta etorkizunean saihestu behar den bidea erakusten; hiritar jakintsuagoak, irizpide gehiagokoak eta, ondorioz, askeagoak ere sortzen ditu. Gehiago esango dut, memoria historikoa gordetzea etorkizunean inbertitzea da. Izan ere, herrien identitatea memoriak emandako materialetatik elikatzen da, nagusiki.

#### 4. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- Altuna, O., Berrio-Otxoa, K., Jausoro, N. eta Martinez, Z. (2008): "Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak". *Hiznet, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa. 2008-2009 ikasturtea*. Asmoz Fundazioa, Eusko Ikaskuntza.
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte Ikerketarako Teknikak. Teoria eta adibideak*. UPV/EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Leizaola, A. (2009): "Memoria historikoaren berreskurapena eta gertakari traumatikoen transmisioaren erronkak. Gerra Zibileko lekukotza-bilketarako ohar metodologikoak". Errazkin, M. eta Agirre, J. (2009): *1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria*. UEU, Bilbo.
- Manheim, J. B. eta Rich, R. C. (1988): *Análisis político empírico. Métodos de investigación en Ciencia Política*. Alianza Editorial, Madril.
- Mardones, J. M. (1997): *Filosofía de las ciencias humanas y sociales*. Anthropos.

*Patxi Juaristi.*